



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-06-02

VIII. URTEA 2.016. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EDURNE PASABAN ETA ASIER IZAGIRRE MENDIGOIZALEAK

«Duela bederatzi urte hasi zen proiektua amaierara iritsi da»

TOLOSA Hiru hilabete iraun duen abenturaren ondoren herriaz gozatzeko aukeran dira Pasaban eta Izagirre

SARIAK Espainiako presidentek atzo eman zion Edurne Pasabani Kirol Merituaren Urrezko Domina 4-5



INIGO TERRADILLOS



Irabazleak euren olerki eta hizlaurak irakurri zituzten. A. IMAZ

Uxola Sariak 2010 banatu dira

TOLOSA 'Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza'-k saridun guztien lanak argitaratuko ditu z

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

Rondoko kalea 50 Tolosa
www.inmakulada.com
943073629

HEZIKETA ZIKLOAK

Lehen maila	Bigarren maila
<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Integrazioa Haur Hezkuntza Orain Dokumentazioa Diagnosi Irudia Erradioterapia 	<ul style="list-style-type: none"> Erizaintza laguntzailea Farmazia teknikaria

AUREMATRIKULAK MAJATZAK 31tik EKAINAK 11ra

WWW.ELEKTRONIKAZIKLOAK.COM

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Nazioarteko Lehiaketak Praktika atzerrian

INFORMAZIOA 943 310 873

IRUDIGINTZA, KARTELGINTZA, PUBLIZITATEA ARGAZKIGINTZA, SERBIZIUPEN DIGITALA, SERBIZIUA WEB DISEINUA, MULTIMEDIA, MARKETAGINTZA



Sari banaketa ekitaldia atzo burutu zen Tolosako Kultur Etxean. A. IMAZ

Uxola Sariak 2010-eko sariak banatu dituzte eskualdeko ikasleen artean

ERREDAKZIOA

1981. urtean hasi ziren Uxola Saria antolatzen, Estanislao Urruzolaren, Uxolaren, omenez. Eskualdeko ikasleentzat zuzendurik dagoen olerki eta hizlari lehiaketa honean, atzo banatu zituzten sariak.

Partaideak lau mailatan lehiatu dira, ikas mailaren arabera. Euren lanak zuzentzeko ardura berriz lau epaimahaikidek eduki dute: Agustin Amiano, Bittor Madina, Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasorok.

SARIDUNEN LAN GUZTIAK TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA'N

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak Uxola Sariako lan sari guztiak argitaratuko ditu papezko edizioan.

Ekainaren 5ean, larunbatean, I. Mailako hizlariak eta olerkiak irakurtzeko aukera egongo da egunkarian.

Ekainaren 6ean, igandean, II. Mailako hizlariak eta olerkiak argitaratuko dira.

III. eta IV. mailako saridunen lanak ekainaren 12an eta 13an argitaratuko dira.

Tolosako Laskorain Ikastolako ikasleek 7 sari lortu dituzte. Hirukide Eskolapioetakoe bost eta Hirukide Jesuitinakoek lau.

J.A. Muñagorri Eskolako ikasle batek, Oihane Zubiriak, I. Mailako hizlariaren arloan, hirugarren saria eraman du Berastegira.

» SARIDUNAK

I. Maila (Lehen Hezkuntza 3 eta 4) - Hizlaria

1-Laia Ortiz (Laskorain Ikastola). *Maren, Miren eta zapata miragarriak.*

2-Xabier Galarza (Laskorain Ikastola). *Tomax eta bi txakurrak.*

3-Oihane Zubiria (J.A. Muñagorri Eskola). *Kuku langilea.*

I. Maila-Olerkia

1-Itsaso Oreja (Laskorain Ikastola). *Zelai polita.*

2-Naia Imaz (Hirukide Jesuitinak). *Uraren bizia.*

3-Arantxa Garikano (Hirukide Jesuitinak). *Nire akordea.*

II. Maila (Lehen Hezkuntza 5 eta 6)-Hizlaria

1-Edurne Sanz (Samaniego Herri Eskola). *Lorezainak eta zaldiak.*

2-Ane Becerril (Samaniego Herri Eskola). *Ettxeko txapin magikoak.*

3-Haritz Estivariz (Jesuitinak). *Lehenengo euskalduna Jupiter-en.*

II. Maila-Olerkia

1-Karla Murguialday (Laskorain Ikastola). *Itsasoa.*

2-Libe Barriola (Hirukide Jesuitinak). *Gera zaitzel.*

3-Maria Magro (Samaniego Herri Eskola). *Espaloi ertzean.*

III. Maila (DBH 1 eta 2) Hizlaria

1-Aitor Ezeizabarrena (Orixe Institutua). *Merkatari zuhurrak.*

2-Usoa Aldazabal (Laskorain Ikastola). *Uraren alaba.*

3-Xanti Nazabal (Laskorain Ikastola). *Ezusteko ehiza.*

III. Maila-Olerkia

1-Amets Esnaola (Orixe Institutua). *Ezusteko bisita.*

2-Uxue Lasa (Orixe Institutua). *Benetan izutzen nauenak.*

3-Leire Elola (Laskorain Ikastola). *Errekatxoa.*

IV. Maila (DBH 3 eta 4) Hizlaria

1-Nerea Unsain (Hirukide Eskolapioak). *Urtebeteko agurra.*

2-Ibai Esnaola (Orixe Institutua). *Egiaren gezia.*

3-Marta Tejeira (Hirukide Eskolapioak). *Obsesioa.*

IV. Maila-Olerkia

1-Irene Lopez (Hirukide Eskolapioak). *Pianoa.*

2-Mireia Vicente (Hirukide Eskolapioak). *Bizitza ona.*

3-Nerea Ugartemendia (Hirukide Eskolapioak). *Zu zeu.*



Euskadiko Txapelketan bikain

TOLOSA • Iragan asteburuan Euskadiko Atletismo Txapelketa jokatu zen Bilboko Zorrotzan. Hirukideko kirolariak emaitza bikainak lortu zituzten bertan. Mutilek taldekako lehen postua lortu zuten eta neskek berriz bigarrenkoa, irabazleak puntu bakarrera gelditu zen. Irudian Hirukideko bi taldeak elkarrekin ikus daitezke. HITZA

Laburrak

Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago

HEZKUNTZA • Tolosako Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolak azaldu duenez, 2010/11 ikasturteko matriculazio epea zabalik aurkitzen da. Ekainaren 11 arte bertako ikasleak aurkeztu ahaliko dira. Ekainaren 21etik 30era arte, aurreko instrumentua aukeratu behar dutenak eta ikasle berriak. Informazio gehiagorako 943 65 15 93 zenbakia jarri dute, 10:00etatik 13:30era.

Samaniego ikasturte amaierako ospakizuna

JAIA • Tolosako Samaniego Herri Eskolan ikasturte amaierako festa ospatuko dute ekainaren 5ean, larunbatean. 12:00etan ikasleek emanaldiarekin hasiko da jaia. Ondoren haur jolasak eta bazkaria egingo dute. Egunarekin amaitzeko EGAN taldearekin dantzaldia eta txokolatada egongo dira.

Odriozolaren askatasuna eskatuko dute Triangulon

POLITIKA • Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egingo da bihar, hilak 3, Triangulo plazan 19:30ean. Odriozola Lizardi Elkarteak bazkidea da eta bere kideek antolatu dute ekimena hileroko bezala. 2008ko uztailaren 2an bete zuten kondena oso-oso tolosarrak, baina oraindik preso daukate, «injustizia itzel bat tarteko, Parot legea tarteko alegia». Elkarretaratzea ohiko lekuan ez dute burutuko Lizardi Elkarteak kideek: «Horixe da azpimarratzea nahiko genukeena, izan ere, ia bi urtez Plaza Zaharrean egin dugu elkarretaratzea eta hemendik aurrera Triangulo plazan egin asmo dugu aipatutako protesta». Azkenik, herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Hirukideko aiton-amonon Eguna gaur 16:30ean

KULTURA • Tolosako Hirukide Gainberrin Aiton-amonon Eguna ospatuko dute gaur. Iaz egin zuten bezala, Hirukideko aiton-amonak ikastetxean izango dira. 16:30ean hasiko da ekimena eta aiton-amonoi merezi duten omenalditxoak eskaintzea da helburua. Lehenik harrera egingo zaie. Ondoren pailazo ikuskizuna egongo da eta asbaki batekin amaituko da omenaldia.

Kontsumitzaileen Informazioarako Bulegoaren egutegi berria

ZERBITZUAK • Tolosaldea Garatzen bere zerbitzuen barruan Eskualdeko Kontsumitzaileen Informazio Bulegoa kudeatzen du. Zerbitzu honen bitartez, herritar guztiei doako arreta eskaintzen zaie, dituzten zalantza inguruz eta hala dagokienean, egin behar dituzten erreklamazioak izapidetuz. 2009an 498 pertsona pasatu ziren bertatik eta 91 erreklamazio izapidetu ziren. Eskualde mailako zerbitzua bermatzeko, bulegoak hiru kokaleku ditu (Ibarra, Tolosa eta Villabona) eta haietako bakoitzean egun jakinetan izaten da. «Zerbitzua hobetzeko helburuarekin», egutegia moldatzeko ahalegin bat egin dute, «herri bakoitzeko azpiegitura eta ingurumaria ahalik ondoan egokitzeko». Hori horrela, aurrerantzean Eskualdeko Kontsumitzaileen Informazio Bulegoak honako egutegi eta ordutegia izango ditu:

- Astelehena, asteazkena eta osteguna: 9:30-13:30 Tolosa (Kultur Etxean).
- Asteartea: 9:30-13:30 Villabona (Udaletxean).
- Ostirala: 9:30-13:30 Ibarra (Udaletxean).



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Musikaz eta kantuz bustiko dira Alegiako kaleak

Kultura » Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrena dela eta, larunbatean Musikaz Blai festa ospatuko dute.

ERREDAKZIOA

Musikaz, kantuz eta bertsoz beteko dira larunbatean Alegiako kaleak. *Alegia Musikaz Blai* izena eman dioten festa, Txintxarri Abesbatza eta herriko kultur elkarteek antolatu dute.

Musika izango da protagonista, goizean goizetik gaueko ordu txikiak arte. Txintxarri Abesbatzak 50. urteurrena ospatzen duela arrazoitzat hartuta, herritarrek elkarlanean antolatu dute festa. Nabarmenezkoa da, egunean zehar izango diren musika emanaldi guztiak herriko talde eta musikariek eskainiko dituztela.

Goizeko ekitaldia, haurrei zuzendutako, tailerrarekin hasiko da Txintxarri plazan. Gurasoen laguntzarekin, herriko txikienek turutak, danborrak eta marakak egingo dituzte.

Gosari musikatuak

Umeak musika tresnak egiten dituzten bitartean, modu berezian hasiko dute eguna helduagoek. Gitarraren eta pianoaren doinuekin, gosariak musikatuko baitituzte herriko taberna ezberdinetan.

Hilario Berrin, Iñaki Mezkita ariko da musikari lanetan, gitarrarekin. Kafan eta Eizemendin, Maria Beatriz Stipetichek ere gitarra joko du. Aitor Iraolak, Jubilatuenean eta Iskifan pianoarekin eskainiko du musika emanaldia.



Herriko kultur elkarteek eta Txintxarri Abesbatzak elkarlanean antolatutako jaietan, musika, kantua eta bertsoak izango dira protagonista. HITZA

Eguerdian, kalejiran abiatuko dira herritarrak plazatik. Loatzo musika eskolakoak eta Txintxarri Abesbatzako kideek, alaituko dituzte kaleak. Elkarren artean prestatu dituzten hainbat abesti kantatuko dituzte, herriko bospasei tokitan.

Herri bazkaria

Goizeko ekitaldien ondoren, arratsalderako indar berritzeko, herri bazkaria antolatu dute. Paella eta postrea izango dira menuan. Osteguna bitartean egongo dira bazkari txartelak salgai, herriko tabernetan, 10 eurotan. Egunean bertan txartelak ez da salgai izango.

Bazkaria alaitzeko, musika eki-

» EGITARAUA

- **11:00.** Haurrentzako musika tailerra Txintxarri Plazan. Gitarra eta piano doinuekin musikatuko dituzte gosariak tabernetan.
- **12:00.** Kalejira Loatzo eta Txintxarri abesbatzako kideekin.
- **14:00.** Herri bazkaria (Paella, postrea eta edariak)
- **17:00.** Kontzertuak plazan, Keirian eta Oinazez taldearen eskutik.
- **19:30.** Alboka poteoa.
- **20:30.** Zahagiardoa.
- **21:30.** Kontzertuak Tontokalen; Bertsoariak, Ziklox Garaialde eta Manillares Iturriagaren eskutik.
- **00:30.** Itzel Taldearekin dantzaldia plazan.

taldia, *Musikaz Blai* egunean. Herriko plazan Keiran eta Oinazez herriko taldeen eskutik, 17:00etatik aurrera.

Ondoren, 19:30ak aldera, Alboka poteoa egingo da. Zahagiardoa-ekin emango diote segida festari Tontokalen.

'Ustukoixkiu' diskoaren aurkezpena

Zazpi Astoren gainean, bertso taldeak kaleratu berri duen, *Ustukoixkiu* diskoaren aurkezpena egingo dute 21:30ean. Taula gainean, herriko bertsolariak eta musikariak izango dira. Bertso musikatuaren emanaldia eskainiko dute. Segidan, hainbat urtetan geldirik

egon den Ziklox Garaialde taldearen doinuak entzungo dira. Tontokaleko emanaldiei amaiera emateko, Manillares Iturriaga taldeak, musika talde ezagunen bertso ezagunak eskainiko dituzte.

Kantuz eta bertsoz beteriko egunari, dantzarekin emango diote amaiera. Itzel taldeak, gauerdiko 00:30etik aurrera, dantzaldia eskainiko baitu herriko plazan.

Antolakuntzatik, dei berezia egin dute «herritarren parte hartzea» eskatuz, gosari musikatuetan, herri bazkarian eta kalejiran.

Musikaz Blai jaiak, Txintxarri Abesbatzak bere urteurrena dela eta, antolatu dituen ekitaldiei emango die lekukotza.

Mendia, gimnastika eta judo erakustaldiak Kirol Asteetan

ERREDAKZIOA

Kirol asteetan murgilduta daude Asteasu eta Alegia. Herriko txikienek izan ziren protagonista atzo Asteasun. Gimnastika erritmikoa eta judo erakustaldia eskaini baitzuten kiroldegian.

Alegian, bideo proiektzioarekin Himalayara bidaiatu zuten; 8.027 metrotar, Shisha Pangmaraino hurbildu ziren Kultur Etxean bildu zirenak. Koke Lasa, mendizale ormaiztegiarrek, *Shisha Pangma*, bide britainiarra espedizioko irudiak eskaini zituen.

Asteasun gaur, mahai teniseko erakustaldia emango dute neska mutikoei, 16:30ean pilotalekuan. Ostiralean, patinak jantziko dituzte. Alegian, ostiralean emango diote segida Kirol Asteari, gimnastika erritmikoko erakustetarekin. Igandea bitartean, kirol ekitaldi ugari antolatu dituzte bi herrietan.



Asteasuko gimnastika erakustaldia. Alegian mendi proiektzioa. EM/A/B

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Pastilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea FAGOR www.fagor.com

AUKERTA 67232AL 9123 69383702
berria

Elkarrizketa

EDURNE PASABAN ETA ASIER IZAGIRRE » Mendigoizaleak

Mendia » Annapurna eta Shisha Pangma gailurrak igotzetik bueltatu dira euren jaioterrira bi mendigoizaleak; «oso poziko» daude jendearen ongietorriarekin.

ESTI EZBEZA-INGO TERRADILLOS

Azken erroka gainditu ostean etxean dira Eduarne Pasaban eta Asier Izagirre mendigoizaleak. Ia bi urte hilabete iratu duen abenturari Annapurna eta Shisha Pangma gailurrak igotzeak. Ondorioz, Pasabaneak hamalau zortzimilakoan zerrenda ostrean zortzi da, horiek baino ez baitzaitzakion falta, eta horrela, munduan kopan hori duen bigarren emakumea da, Oh Eun-Sun korreakaren atzetik. Asier Izagirre bere sigoaren zortzimilako batua da espedizioa honetan. Atsedean hartzeko tartetik apesun izan badute ere, dagokien buruan duate hurrengo erroka, Everest gailurra oxigenorik gabe egitea, aitzaki.

Zer sentazio dituzue azken espedizioa amaitu ondoren?
Eduarne Pasaban. Oso ondo sentitzen gara. Duela bederatzita urte hasi zen proiektua amaitzeko iritsi da, oso ondo bukatu dugu gurtia, eta oso poziko gaude.

Asier Izagirre. Gure sentazioa oso ona da. Gauzak oso ondo egin ditugu, eta dena espero bezala irten da. Aurkitik egin genuen prestatzean gurtia ondo egin genda nabaritu da Himalaietan, proiektua eduki amaitzea lortu baitugu. Oso gaitur gaude.

Nolako espedizioa izan da?

E. P. Azken espedizioa luzea eta gogorra izan da. Baskak Hermitik bi zortzimilakoa egiteko intentsioa arakin ateratu ginen. Annapurnarantz gidiozela bagenekien mendiko gogorra zela, baina lan handia egin genuen, eta dena espero bezala joan zen. Bigarren gailurra gogorrago egin zitraguen. Lehen gailur bat egiteko gaituzten, eta ez matzen gureen nekaz gain, denbora ugari egin beharra izan dugu Shisha Pangmaren oinarritzeko kanpalekuan gailurra egiteko eguraldi ona noiz zegoiko zain. Hori izan zen gogorrena.

A. I. Annapurna zailtasun handia duen mendia da, arriskutsua, eta guri dena primeran ateratzea, eta hori konstante haurtera lan handia egitea zegoiko zaitzugu. Shisha Pangmako motzagozitate espuratu genuen, baina azkenean eguraldiarengatik nahitabaiz gaituzteko izan zen. Oinarritzeko kanpalekuan 17 egun igarotzen iraxaroten, eta hori psikologikoki gogorra izan zen. Gainera, Eduarne eta biostzat bosgarren saiakera zen Shisha Pangman, horregatik, gailurra egitea besterik ez genuen buruan. Az-



«Herriarrek jarraitzen zaituztela ikustea benetan hunkigarria da»

lehen, gurtia oso ondo ateratu zen, beraz, oso poziko gaude.

Shisha Pangmako gailurra egitean zer sentitu zenuen?
E. P. Gailurra bertan oso guzta gertu. Hori bai, une hori oso hunkigarria izan zen.

«Gauzak oso ongi egin ditugunaren sentazioa dugu, dena oso ongi ateratu da, eta oso poziko gaude»

«Azken espedizioa luzea eta gogorra izan da, batez ere, asko itxaron beharra izan dugulako»

Azken espedizio hau guztietan bereziana izango zen.
A. I. Oso berezia izan da azken espedizioa, batez ere Annapurna egin eta gero, Annapurna mendia handia, gogorra eta arriskutsua baita. Era berean, bestetan baino tenso handiagoa izan dugu, baina justu horregatik, azken gailurrak zirelako.

Tolosan pasa den larurbatean egin zizueten harreko jende-tua izan zen. Zer sentitu zenuen?
E. P. Oso hunkigarria izan zen ongietorria. Egin diezadaketan oparirik poltiera izan zen. Jaio zaren lekuan jendeak horrelako harreara egitea oso polita da. Maite zaituztela sentitzen dugu. Mendia gogorra geure buruarentzat egin dugu, baina, baina, bestetan ere, besteek gurekin disfruta dezaten, eta gurekin batera bizi dezaten esperientzia. Nire intentsioa hori da. Jendeak bizi duela eta jarraitu gaituela ikustean, da, eta pozikoa

da. Jendearen borotasuna nabaritzen da, eta horrek laguntzen ditu mendian gerra egiteko.

A. I. Nik zer bait zukiagoa eta formalgia esperioa. Lehenabizi ziko sorpresa izan zen udalatean beharrean, Triangulon gertatzen, eta handia Plaza Zaharretan joan gindela txistulari eta dutzaineroek eta TAKeko arraunlariek in lagunduta. Plaza iritsian eta hura jendea bertan ikusten oso polita izan zen, guretzat eta familiarrentzat. Esaterako, nire ama plaza harrera egin ikusten oso hunkigarria izan zen niretzat. Baina, baina, eta plaza horrela ikustea berezia izan zen. Oso tolosar sentitzen naiz, eta benetan pozikoa izan zeneke ziguten harreara.

Lehen eguneko harreaz gain, Eduarne sari eta aipamen ugari arri

zara jasotzen. Azkena, atzo Rodrigo Zapatero Espainiako presidentearen eskutik jaso zenuen Kirol Merituaren Urreko Domina.
E. P. Zoriontsu sentitzen naiz. Baina zure etxean, bai eta munduan zehar zure lana miresten eta baloratzen dutela ikustea oso gozagarria da. Ahal den neurrian gure boronkapan zabaldu eta ezagutaraztea lortu dugu gure kirolaren bidez, eta lan hori hainbeste eskertzen bada, are eta hobeto.

Zain da buruan duzun hurrengo erroka?
E. P. Hamalau zortzimilakotan lehena Everest igotzean naiz. 2001. urtean, Oxigenoaren laguntzarik ino dudan mendia bakarra da izan ere, nik gara hartan ez nirean oraindik nire gorputzaren mugak ezagutzen, eta horrela igotzea era-

hala nuen. Gaur egun, munduko hamalau zortzimilakoa egin ostean, edeki ezagutzen dut nire gorputza, nire ezagarririk eta bizi nire mugak ere, eta horregatik uste egokia dela iruditzi zait Everest.

«Mendia guretzat egin dugu, baina, baina, gure jendearentzat ere, gurekin goza dezaten»

«Udalarekin hasiko gara entrentzen, udaberrian oxigenorik gabe Everest igotzeko»

rest mendia oxigenorik gabe igotzeko.
A. I. Ni orain lanean hasiko naiz,

eta gero udalarekin berriro ere mendira jotoke entrentamendekin hasiko gara. Gure asmoa da udaberrian Everest mendia igotzea oxigenoaren laguntzarik gabe. Erroka handia da. Jendea loz galdetzen dit eta zortzimilakoa egin jarraitu behar duela, eta nik ezotz esaten diet, ez dela nire asmoa helburua hori. Eduarne aukera eman zidan proiektu honetan sartzeko, eta niretzat polita zen pentsetan Eduarne laguntzen ari nintzela munduko lehen emakumea izaten. Oso gaiturra egin naiz, eta berak bukatu du bere proiektua, beraz, oso poziko naiz. Baina, nik eskalazale sentitzen naiz, eta nire asmoa eskalaren jarraitzea da, eta urtean behin Patagoniara edo Kalforniarira joatea, baina beste dinamikak behar dira.



Ferran Latorre, Eduarne Pasaban, Alex Txikon eta Asier Izagirre espediziozaleak. IVEA/FLORENDO MORALES

«Ezagutzen ez dutenek iritzia ematea ez da bidezkoa»

Egun gutxiengatik hartu zizuten aurre Oh Eun-Sun korreak.
E. P. Argi zegoen zaila zela berak baino lehenago amaitzea, izan ere guri bi zortzi zaitzakizagun, eta berak bakarrik. Horregatik denborarikaren oso hasieran joan ginen. Dena den, hau gurtia, nolabait bigarren maila batean geratzen da guretzat.

A. I. Pena sentitzen dugu. Annapurna egin genuen, Shisha Pangmara azkar joateko asmoa genuen korreak bino lehen egiteko asmoa. Izan ere, bera, arren Annapurnako oinarritzeko kanpalekuan zegoen eta egokitzen ari zen oraindik, eta guri Shisha igotzeko asia emango zigula uste genuen, oso zaila izango zela bagenekien arren. Gero eguraldiaren errotzako ondoren zen Shishako egoera, Oh Eun-Sun igotzearen errotzako ondoren zen Shishako egoera, eta astebe edo biheren buruan, eta egia jakingo dela espero dut.

malauk egu dituela dioen arren, zailtasun handiak daude.
E. P. Guk esan dugu zailtasun handiak izango direla, baina, horiek, benetako ez zirela, eta Korea federazioak ez dio onartzen hamalau zortzimilakoa egin dituela, beraz, ez da gure kontua soilik. Lehenago urteko udalarekin hasi ziren hori esaten, eta uste benetan berak frogatu behar du hamalauk igotzeala, guk egin dugun bezala.

A. I. Nik oraindik ez diot garaipe-rik ematen, zailtasun handiak baitaude. Guk badakigu Kangchen-juang ez duela egin. Gainera, Eduarne iritziatzen duate, zailtasun handiak daude eta usatuko, baina, baina, hori bera Himalayan ematen bada, sekulako hasieran sortzen da, eta ez du ulertzen zergatik. Eduarne ere asko iritziatzen duate, zailtasun handiak daude eta usatuko, baina, baina, hori bera Himalayan horrela egin dugu,

edo bestela ez dugu egin, bizi egon baitaieke arriskuan, eta hori Annapurnan ikusi ahal izan da.

Herriakok arriskuak hartzeko merezi al du?
E. P. Heriotzak gertatzen dira gure inguruan, eta jendeak galdetzen digu zergatik jarraitzen dugun mendiak igotzen. Zaila da esplikatzeko, eta horretarako bizi du egin behar da. Nik norbait esaten badiot mendian zoriontsu naizela eta egin dudan agenez kontentua naiz, aguzterna uertuko. Baina, nik beste pertsona askok egin dutena ulertu ez dezaketean bezala.

A. I. Nik arriskuak gustatzen zait eta geroz, eta arrisku handiagorik hobeto sentitzen naiz. Baina, arrisku hori kanpalekuan dagoen, zaila da ulertzea. Nahiago dut ni arriskuan bila joatea, eta ez izatea bera datorena. Hala ere, gure

zail ongi eta gure alde dauden egin ditugu, gure bizi arriskuan ikusten badugu ez dugu egin.

Tole Calafeten heriotzak ere eztabaialdu zuten.
E. P. Gailurra gertatzen denaz jakituko izan egin behar duzu. Ni ez ez nire ino lan gertatu zenez iritzia oso justa. Beraz, agor horietan pertsona bat zer bait egin behar da. Nik norbait esaten badiot mendian zoriontsu naizela eta egin dudan agenez kontentua naiz, aguzterna uertuko. Baina, nik beste pertsona askok egin dutena ulertu ez dezaketean bezala.

A. I. Nik arriskuak gustatzen zait eta geroz, eta arrisku handiagorik hobeto sentitzen naiz. Baina, arrisku hori kanpalekuan dagoen, zaila da ulertzea. Nahiago dut ni arriskuan bila joatea, eta ez izatea bera datorena. Hala ere, gure

zail ongi eta gure alde dauden egin ditugu, gure bizi arriskuan ikusten badugu ez dugu egin.

Tole Calafeten heriotzak ere eztabaialdu zuten.
E. P. Gailurra gertatzen denaz jakituko izan egin behar duzu. Ni ez ez nire ino lan gertatu zenez iritzia oso justa. Beraz, agor horietan pertsona bat zer bait egin behar da. Nik norbait esaten badiot mendian zoriontsu naizela eta egin dudan agenez kontentua naiz, aguzterna uertuko. Baina, nik beste pertsona askok egin dutena ulertu ez dezaketean bezala.

A. I. Nik arriskuak gustatzen zait eta geroz, eta arrisku handiagorik hobeto sentitzen naiz. Baina, arrisku hori kanpalekuan dagoen, zaila da ulertzea. Nahiago dut ni arriskuan bila joatea, eta ez izatea bera datorena. Hala ere, gure

zail ongi eta gure alde dauden egin ditugu, gure bizi arriskuan ikusten badugu ez dugu egin.

Tole Calafeten heriotzak ere eztabaialdu zuten.
E. P. Gailurra gertatzen denaz jakituko izan egin behar duzu. Ni ez ez nire ino lan gertatu zenez iritzia oso justa. Beraz, agor horietan pertsona bat zer bait egin behar da. Nik norbait esaten badiot mendian zoriontsu naizela eta egin dudan agenez kontentua naiz, aguzterna uertuko. Baina, nik beste pertsona askok egin dutena ulertu ez dezaketean bezala.

A. I. Nik arriskuak gustatzen zait eta geroz, eta arrisku handiagorik hobeto sentitzen naiz. Baina, arrisku hori kanpalekuan dagoen, zaila da ulertzea. Nahiago dut ni arriskuan bila joatea, eta ez izatea bera datorena. Hala ere, gure



Iaz Elkartearen inaugurazioa egin zuten. ESTI EZEIZA

Behar-Zana Elkartek 64. urteurrena ospatuko du

Villabona » Larunbatean eta igandean ospatuko dute 64. urteurrena. Ekitaldi ezberdinak prestatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zana Kirol Elkartek, 64 urte betetzen ditu. Hori dela eta, astebururako egitarau oparora prestatu dute. Kirola ardatz hartuta, bazkideek, musika, afaria, danborrada eta bazkaria ere

izango dituzte. Kirolari lotuta, pilota, xakea eta erreboten partidak izango dituzte.

Larunbatean egun osoko festa izango dute. 09:30ean hasi eta ekitaldiak goizaldeko ordu txikiak arte izango dituzte. Kalean ere jai giroa jarriko dute 18:00etan buru handi eta erraldoiak ibiliko baitira Loatzoko Musika eskolakoekin. Gauean, danborrada egingo dute Incansables txarangarekin.

Igandeari hasiera dianarekin emango diote eta erreboten partidaren ostean bazkaria egingo dute.

» BEHAR-ZANA ELKARTEKO 64. URTEURRENA

Ekainak 5, larunbata

- **09:30ean.** Pilota partidaren finalak, Bearzana frontoian.
- **10:00etan.** I. Xake Txapelketa azkarra elkartean bertan.
- **17:00etan.** Joko Gariko bi partidak Behar Zana eta kanpoko talde bat aurkari bezala.
- **18:00etan.** Buru handiak eta erraldoiak, Loatzoko ikasleekin.
- **19:00etan.** Hildako elkartekideen aldeko meza.

■ **20:00etan.** Bazkideentzako afaria elkartean.

■ **23:00etan.** Behar Zana Elkartetik atera eta danborra herrian zehar, Incansables txarangarekin.

Ekainak 6, igandea

- **09:00etan.** Txistulariekin diana.
- **11:00etan.** Erreboten partidua.
- **14:30ean.** Elkartean, gonbidatuen aldeko meza.

Eneko Garmendia Gipuzkoako txapelkun lokotxak biltzen

ERREDAKZIOA

Eneko Garmendia baliarraindarra, aurten ere, Lokotx biltzeko Gipuzkoako txapela eskuratu du. Igandean Urnietan izan zen txapelketa eta bere lana 6 minutu eta 17 segundotan bukatu zuen. Bigarren postuan Jon Larrañaga sailkatu zen 6 minutu eta 37 segundoko denbora eginez. Hirugarrena Astiazaran izan zen, laugarrena Zulaika eta bosgarren postuan Barberena geratu zen.

Laburrak

I. Txindoki Kilometro Bertikalean izen ematea

ABALTZISKETA » Lehen aldiz, ekainaren 19an izango da Txindoki Kilometro Bertikalean mendiko lasterketa. Izen ematea, hilaren 4ean ostirala bukatzen da eta www.abaltzisketa.net webgunean eman daiteke. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dute eta federatu ez direnak, 20 euro. Pobra puntuagarria izango da eta lasterkariak, Larraitzeko langan hasi eta Txindoki puntan amaitu beharko dute.

Baliarraingo III. Frontenis Txapelketan izen ematea

BALIARRAIN » Partidak, hilaren 19-20 eta 26-27an jokatuko dituzte. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, antolatzaileek hirugarren urtez jarraian antolatu dute. Izen-ematea ongi badoa ere, antolatzaileek, neskei dei berezia egin nahi diete parte hartzerako animatzeko. Izena emateko azken eguna, hilak 4, ostirala izango da.



Aizkardikoak Arangaitz-Lakarrin

VILLABONA » Aizkardi Mendi Elkartekoak, asteburuan Zuberoan Arangaitz-Lakarri aldean ibili ziren. Irati aldean ezezagunak diren tokiak bisitatu zituzten; besteen artean Lexarra, Ahuski, Arhansuza lepoa, Beloskarre eta Bosmendieta tontorrak igaro zituzten. HITZA

Eskualdean Uema egunera joateko autobusa antolatu dute

Euskara » Uema Eguna ekainaren 12an da eta autobusa doan izango da. Izena ekainaren 7a baino lehen eman beharko da.

telefono zenbakia eman beharko dute, autobusa ateratzen ez bada, abisua emateko.

Autobusaren ordutegia eta paradak hauek izango dira: 09:00etan, Alegian, estazio parean. 09:05ean, Tolosan, bonberotan, 09:10ean Irurran, N-leko autobus paradan. Interesatuek, geltoki horietako batera gerturatu beharko dute. Mallabitik buelta, arratsaldeko 19:00etan egingo da.

Bazkaria ere izango da Mallabiko frontoian eta txartelak eros daitezke. Hau da menua: pasta entsalada, bildotsa, euskal pastela, kafea eta kopa. Helduen txartelak, 20 euro balio du eta umeen txartelak, 10 euro. Bazkarirako txartelak erosteko edo autobusean izena emateko, komeni da bakoitza bere herriko udaletxearekin harremanetan jarzea edota zuzenean, Uemaren bulegoaren telefonora deituz (943 26 03 72).

ERREDAKZIOA

Ekainaren 12an, larunbatean, Uema eguna izango da Mallabian (Bizkaia). Bertan, hainbat ekitaldi izango dira: herrien arteko Xiba jokoa, dantzaldiak, musika, Xabier Mendigureni eskertzea, bazkaria...

Tolosaldeatik autobusa aterako da Mallabira joateko eta doan izango da. Izena emateko azken eguna ekainaren 7a izango da. Autobusa atera ahal izateko, gutxienez kopuru bat lortu beharko da. Kopuru batera iritsiko ez balira, ez da autobusa aterako. Herritarrek,

Hilberriak

MARI PAZ TELLETXEA GASTEARENDA
ANDREA
(JOSE ANTONIO ARTOLAREN ALARGUNA)

Maiatzaren 31n hil zen, 66 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Seme-alabak: Miren, Xabier, Azurmendi, Jose Antonio; bilobak: Mikel eta Jokin; ahizpa: Isabel; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetelela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Irurako SAN MIGUEL, El parrokian elizaren egiteko den hiletara. Aldoz aurretik, mila esker.

IRURRA
2010eko ekainaren 2a

Hilbidetza: Nagusia kafea, 22-3, ezkerrean.
Oharra: Gorpuztut belia Tolosaiko ORIA TANATORIOAN (Usabal poligonoa, 12-B) egingo da, gaur asteazkena goizetako 11:00ak arte.

GREGORIO EZAMA ZINKUNEGI
Jauna

Herenegun hil zen, 82 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Bere anai-arrebak: Sor Maria Aranzazu (lekaimea) (†), Juan (†) eta Felisa Aranguren, Jose, Ana M^a eta Ramon Azpiroz (†); ilobak: M^a Jesus eta Jose Ignacio, Iñaki eta Nekane, Iñaki (†), Josune, Aitor eta Saioa; iloba txiki, lehengusu eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetelela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokian elizan, gorpuztuta bertan dela egingo den hiletara. Aldoz aurretik, mila esker.

ZUMARRAGA
2010eko ekainaren 2a

Oharra: hilbeila Santa Isabel Tanatorioan egingo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Udan etxean ez geratzeko, ikastaro eta tailer ugari Leitza eta Ibarra

Aisia » Belabietan kiroldegian jarduera ezberdinak antolatu dituzte; Leitza berriz, tailerak eta haur txokoa.

ERREDAKZIOA

Uda eta aldi berean, sasoi honetako oporraldia iristeko egun gutxi batzuk besterik ez dira falta. Ikasle eta irakasleek sanjoanen bueltan esango die agur ikasturteari. Hori dela eta, jada hasi dira prestatzen denbora aprobetxatzeko jarduerak ezberdinak, Ibarra kiroldegian, eta Leitza.

Udako kanpaina, Kiroldegian

Haur nahiz helduei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte uda honetarako, Belabietan kiroldegian. Txikienei zuzenduta, 10-16 urte bitartekoei hain zuzen ere, eskalada ikastaroa martxan jarzea erabaki dute. Uztailean izango dira saioak, hilaren 7tik 10erabitaratean. 11:00etatik 13:00etara bitartean izango dira eskolak, Ibarra Kiroldegian bertan. Ikastaroaren prezioa, bazkide direnentzat, 22 eurokoa da.

Helduentzat berriz, yoga ikastaroa izango da uztailean. Hemen,



Jolastu eta jarduerak ezberdinak eginaz, ikasteko aukera izango dute umeek, haur txokoa. A. IMAZ

saioak, astean behin izango dira, asteazkenetan hain zuzen ere, 10:45ean. Hauek ere Belabietan bertan izango dira, eta bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, izena emateko. Gainontzekoek berriz, bost euro gehiago.

Argibide gehiago nahi dituenak Kiroldegira bertara jo dezake, edo 943 67 15 44 telefono zenbakira deitu.

Udako tailerak eta haur txokoa Leitza

Uda honetan aspertzeko betarik ez dute izango Leitza haurrek. Gaztetxoentzako atzeratze-koasmoz, tailerak eta haur txokoa antolatu ditu Udalak, euskara zerbitzuarekin eta Tolosaldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatearekin elkarlanean.

Txikienetatik hasita, hiru eta sei

urte bitarteko haurrentzat, lau txoko ezberdin izango dira. Hasteko, uztailean 5etik 9ra, *Naturarekin jostatzeko* izenekoak egingo dute. Bertan, trenbidera eta igerilekura irteerak egingo dituzte. Honez gain, lore eta hostoekin eskulanak egingo dituzte. Bigarren txokoak, euskal mitologia du ardatz, eta Mari, Galtzagorriak, Tartalo eta Basajauna bezalako pertso-

naiek ezagutzeko aukera izango dute haurrek. Horretarako, ipuinak, antzerkiak eta eskulanak erabiliko dituzte. Uztailean 12tik 16ra iraungo du honek.

Hirugarrena, sukaldaritzakoa da. Pizza, erroskilak, taloak, ... egingo dituzte saioen bitartean. Uztailean 19tik 23ra egongo da zabalik txokoa. Azkeneko sormena lantzeko dago antolatua. Uztailean 26tik 30era, horma irudiak, buztinezko lanak eskuekin margotu eta musika tresnak eskuz, egingo dituzte.

Sei eta hamabi urte bitarteko gaztetxoek berriz, tailerak izango dituzte. Hauek ere lau izango dira, eta haur txokoen data berdina izango dituzte. Hala, lehendabizikoa naturaren inguruko izango da, uztailean 5etik 9ra bitartean. Bigarrenak, *Sukaldea saltsan* du izena, eta uztailean 12tik 16ra izango da. Hurrengoan, papera oinarri hartuta, hau nola birziklatu, eskulanak egingen, kolorez tindatzen... ikasiko dute. Uztailean 19tik 23ra izango dira saioak. Azken tailerri, *Hi haiz artista!* jarri diote izenburu, eta uztailean 26tik 30era izango da. Pegatinak egingen, buztina lantzen, pintzekin eskulanak egingen... ariko dira tailer honetan.

Tailerretan nahiz haur txokoa izena emateko interesa dutenek, datorren asteartetik aurrera egin dezakete 012ra deituta. Plaza mugatuak direnez, herrikoa izatea eta izena emateko ordena kontuan hartuko dute, lehentasunak ezartzeko orduan.



Leitza futbol jokalariek bikain aritu dira denboraldi honetan. HITZA

Aurrerako infantilak Kopako txapeldun

ERREDAKZIOA

Aurrera futbol taldekoek irabazi dute Nafarroako Kopako finala. Joan den larunbatean jokatu ziren azken partidak Iruñean. Urtean zehar jokatzeko denbora ligaren hirugarren postua lortu ostean sailkatu ziren leitzarrik Koparako. Hala, bi txapelketetan ere maila oneko taldeak lehiatu badira ere, eskualdekoak gailendu dira.

Aurrerako infantil taldekoak egun berean jokatu zituzten bi partidak. Lehendabizikoa eta gogorrena finalurrekoa izan zen, Ira-

bia taldearen aurka (Ligako Txapelduna). Partida azkarra izan zen, erritmo bizikoa eta baloiarekin kontrol handia erakutsi zuten. Kostata baina joko oso polita eginaz eta talde bezala jokatu, lehia irabaztea lortu zuten 5 eta 1eko emaitzarekin.

Handik bi ordutara finala jokatu behar izan zuten. Hemen, aurkariak motelagoak izan ziren eta Aurrerako taldeak gozatu egin zuten futbolan. Erraz menderatu zituzten aurkariak eta 10-3an amaitu zen partida.

Euskal Herriko Taldekakoan bigarren eta hirugarren

Sega » Larunbatean jokatu zen saioa Ormaiztegin; orain, nahi duenarentzat, sega ikastaroak antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Larunbatean Ormaiztegin jokatu zen Euskal Herriko Taldekako III. Sega Txapelketa. Bertan, gizonzkoetan, Zaldibi I taldea izan zen garaile, 4 minutu eta 14 segundoko denborarekin. Bigarren, eta hirugarren postuak berriz, eskualdekoentzatzan ziren. Baliarrainek 4 minutu eta 43 segundoko denbora egin zuten eta Gazteluko, 5 eta 12koa.

Emakumezkoetan ere parte hartu zuten eskualdeko segalariek, hauek bigarren geratu ziren, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Bizkaiko segalariek osatutako taldearen atzetik. Irabazleek 4 minutu eta 25 segundoko denbora zuzuten belarra mozteko eta eskualdekoek, 19 segundoko gehiago.

Eguraldia lagun, jende dezente inguratu zen ekitaldiaz gozatzera. Almitza sega elkarteko esane-



Udaberriko igandeetan egingo dituzte saioak plaza ondoko belazean. HITZA

tan, «belar zaila egon arren, segalariek ederki burutu zuten beraien lana». Honez gain, eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartzaile guztiei, eta ekitaldia antolatzen lagunduzuten Ormaiztegi Udalari eta Irizar enpresari.

Sega ikastaroak antolatu ditu Gazteluko Udalak

«Belarrak eskaintzen duen naturarekiko hurbiltasuna eta inguru-

ren edertasuna gozatzu, belarria moztu, jolastu eta kirola eginaz», herriko nahiz inguruko gaztetxo, eta helduagoentzako, segan trebatzeko aukera eskaini nahi du Gazteluko Udalak. Hori dela eta, plaza ondoko belazetan, udaberriko igande eguerdian sega saioak egingo dituzte. Beraz segan nola egingen den ikasteko gogo duenak Gaztelura joatea besterik ez du, bertan erakutsiko baitiote.

